



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-01-24

VIII.URTEA 1.911. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO




Herri galdeketa lehene eguna ospatu zuten atzo Amartz. N. LATABURU

«USTE BAINO JENDE GEHIAGOK» HARTU DU PARTE GALDEKETAN

TOLOSA Auzoaren etorkizunaren inguruan, Amartz Auzo Elkarteak antolatutako herri galdeketa bigarren eguna ospatuko dute gaur 5

Trianguloko haimatik Saharara begiratu dute

TOLOSA Herrialde afrikarrak bizi duen egoera hurbildu zuen Tolosaldea Sahararekin-ek 4



Eskelariak herrian zehar ibili ziren eskean atzokoan. E. EZEIZA

Herriko kaleetan barna ibili dira eskean atsaurreturik

LEITZA Eskelarien bazkariarekin hasi dira lhoteak; gaur gurdiekin irtengo dira kalera 4

SM Saldías Miguel
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
www.saldias-miguel.com

% 60 arteko aurrezkia

Autoak • Motoak • Furgonetak • Kamioiak
Etxebizitzak • Komertzioak • Komunitateak
• Istripuak • E.P.S.V • Osasuna • Inbertsioak • etb.

Zazpiterrieta, 14 • 20200 **Beasain** • Tel.: 943 085 600
San Juan kalea, 6 • 20270 **ANOETA** • Tel.: 943 698 004
Nafarroa Etorbidea, 12 behea
20400 **Tolosa** • Tel. 943 651 189

Emakumeon aurkako erasorik ez!

» Iritzia

Tolosaldeko Bilgune Feminista

Lehenik eta behin gure elkartzunik beroena Elena Calen familiari eta lagunei.

Urtebete inguru da Izaskun Jimenez tolosarraren eraiketa gertatu zela. Urtebete pasa da eta egoerak bere horretan dirau.

Horrelako zenbat gehiago entzun, ikusi eta bizi behar ditugu? Hauxe da milaka emakumek Euskal Herrian bizi duten indefentsio egoeraren ondorio larriena. Hau-

xe da gure herrietan ditugun instituzioek bideratutako lege, berdintasun batzorde eta neurriek ematen diguten erantzuna. Finean, zapalkuntza, diskriminazioa, eskubide berdintasun eza, indefentsioa, **Heriotza**.

Eta Elena Calen kasuan, bazterketa soziala gehitu behar zaio. Kallean bizi zen, bai; apeadero inguruko txabola batean beste bigizonezkoekin batera. Kezka sortu digu Elenaren aurkako erasoaren aurrean hasieran sortu zen zalantza: emakumeon aurkako indarkeria zen ala ez, alegia. Igandean gertatu zen eta astelehen eguerdi

arte ez zen hilketa sexista bezala aurkeztu komunikabide gehienguan. Akaso kalean bizi izanak bigarren mailako biktima egiten du? Guk zalantza guztien gainetik, kallean bizi zen emakume erasotu honen duintasuna nabarmendu nahi dugu. Guk ez dugu zalantzarik, jokatibide matxistak hil du Elena. Emakumeon aurkako indarkeria gure gizarteko eremu guztietan islatzen den gaitza baita.

Bizi dugun sistema patriarkal kapitalista honek bideratzen du gizon eta emakumeon arteko harremanak boterezkoak izatea, hierarkikoak eta ez parekoak. Egituraz-

ko arazoa da hau eta ondorioz, ez da nahikoa momentuko neurriekin erantzutea. Neurri eraginkorrak behar ditugu, prebentziozkoak, integralak, jendartean erasotzaile gehiago ez dela egongo bermatuko dutenak. Sistema patriarkal kapitalista honi era integralen erantzuten ez zaion bitartean, emakumeon aurkako erasok bere horretan jarraituko dute. Jendarteko eremu guztietan gainera. Nola da posible, XXI. mendean, «berdintasunaren aro», deituriko honetan egunero edozein emakumek horrelako gertaera bat pairatzeko arriskua izatea.

Bestelako gizarte bat eraikitzeo eta Euskal Herri parekide batean bizitzeko, ezinbestekoa zaigu urratsak ematea. Ezin dugu «gu


salbatzera noiz etorriko zain» gertatu. Iniziatibaz egin behar diegu aurre egoera hauei gehiago gerta ez daitezen.

Horregatik, ezinbestekoa deritzogu emakumeok antolatzea, gure artean babestea, taldean eztabaidatzea eta espazio komunak eraikitzea. Horretarako aukera izan genuen abenduan Tolosan egin genituen Topaketa Feministetan. Gaietan daramatzagun *roll* eta estereotipoak erantzi eta identitate feministez jantzi ginen. Hasiara baino ez zen izan ordea, etorkizunean Tolosan ere bilgune feminista propio bat sortzeko lehen harria.

Erasorik ez erantzunik gabe! Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartu!

K Komikia

Gorka Salaberria



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Emakumearen aurkako indarkeriarik ez gehiago! Inoiz!

» Iritzia

Onintza Lasa

Tolosako Udaleko Berdintasun zinegotzia, (EA).

Errosotasuneko gizarte honetan dauden bi gaitzez gogoeta txiki bat egitea egokitzeko zait. Bere laburrean, irakurlearen baitan sakonko hausnarketa sustatzeko asmoa duena. Norberaren baitakoa, benetakoa, zinismorik gabekoa, konfesaezinak gertatu arren edo horregatik beragatik, kontzientzia hartzea eskatzen duena.

Tolosan, mundu osoan bezala, krisiak jota gauden kontestua bizi dugu. Kontestu, honelaitxaron dezagun, koiunturala edo puntuala. Alde baterakoa. Baina emakume eta gizon askok urte hasera larritasun dezentez bizi behar izan du.

Erakunde ezberdin, elkarte eta beste hainbat talde buru belarri ari da egoera honi buelta eman eta berriro ere «krisi» hitz madarikatu hori iritsi aurreko egoera paretsura buelta arazteko lanetan.

Hala ere, betidanik, eta noan jorratu beharreko lehen gaira, bazterketa egoerak bizi izan dira. Egoera hau, batzutan koiunturala izanagatik, beste askorentzat iraunkorra den kontestu bat bihurtzen da.

Azpilantetik, edota erakundetatik jaso daitezkeen laguntzetatik, edota eskea edota beste mila bideetatik bizitza aurrera ateratzera ohitutako pertsonak. Arrazoiak? Askotarikoak.

Marginazio edo bazterkeria egoera horrek, pertsonaren garapen orokorrean hondamendia errazten dute, bere atal ezberdinetan. Eta azkenean ongizate mental, fisiko eta sozialean eragina izaten bukatzen du gehienetan.

Galdeta da, egoera horretan bizi izateak berez dakarren pertsona batek dituen eskubideen galera edo ez. Azken finean, pertsona izateko jarraitzen du. Erantzunak argi dirudi: Ez.

Gizarte honetako beste gaitza: Desoreka. Gizon eta emakumeen eskubide eta egoeraren arteko mailatze ezberdina.

Inorgutxik jar dezake datu objektiboekin zalantzan emakume eta gizonok osatzen dugun gizarte hau, gizonek gidatzen dutela bai atal ekonomiko, sozial, kultural, eta abarrean. Pausoak ematen ari gara guztion artean brexta hau gainditzeko, baina gaur egun, oraindik gizartearen eraketa egitura matxistetan oinarritua dago eta horrek islada du botere guneetan, non ia erabat, salbuespenak salbuespen, gizonen dute azken hitza.

Hori ezezik, prekarizatearen, lan murgilduaren, soldata baxuen kopuru gehienek emakume izena dute. Esaterako, lan partzialen emakumea %24 a enplegatua badago, gizonen %4 a dago egoera berdinean. Eta tenporalitateari dagokionean, emakumeak 2009. urteko azken hiruhilabetekoan 8,7 puntu gehiago izan dira, %27,7 an kokatuz. Alegia, lan eremuan ere, emakumeak gizonen kopurua konparatuta egoera okerragoan daude.

Gogoeta orokorrek jarraituta, bazterkeriaren kontestuan ere emakumea okerrago dago. Beraz, bi aldiz galtzaille. Bazterkeria egoeraren egoteagatik eta emakume izateagatik. Drama bikoitza. Baina gai bakoitzak bere erroak ditu, bere azterketa eremua eta konponbidean lanerako ildoak.

Elena Cal-ek, bere bizitzako azken urteak halaberrezko egoera bikoitz horretan pasa zituen azken egunerarte. Eta funtsean, izen abizenak zituen emakume bat modu bortitzean hila izan da.

Zoritzarreko pribilegioa 2010 eko lehen emakume erahila Tolosan gertatu izana. Ea guztion artean, ez Tolosan, ez inon, ez inoiz inori honelakorik ez gertatzeko guztiok ere pixkat gehiago inplikatzin garen. Gizarte hobe eta egitea gure esku ere badagoelako.



Eskaintza berriek erakarrita edo, jende ugari elkartu zen atzo Tolosako azokara. E. EZBIZA

Berrikuntzez jantzirik etorri da larunbateroko azoka

Tolosa » Azokako izarrak aza mota desberdinak izan ziren; urteko lehen tomateak eta marrubiak erosteko aukera egon zen.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna euripean igarozen. Giroa ez zen oso animosoa izan, batez ere aurreneko orduetan, baina pixkanaka eta goiza aurrera zihoala, giroa zertxobait berotu zen.

Eskaintza ez zen batere makala izan; hori dela eta, erosleak animatu egin ziren eta gehienak aurkitu zuten bilatutakoa.

Lehen tomate eta marrubiak

Barazki zerrendan azak, azaloreak, Bruselako azak, romaneskua eta bestelako azak izan ziren izarrak. Oso garai onean daude hauek, eta nabaritzen da salmentetan.

Hauekin babarrunak, mota gutzietakoak, letxugak baita mota askotakoak ere, eskarolak, kixkurrak eta lisuak, erremolatxak, azenarioak, porruak, tipulak eta aurtengo lehenengo baratxuri freskoak nabarmendu behar ditugu.

Berdura plazan nobedade bezala aurtengo lehenengo tomate eta marrubi landareak ikusi ahal izan genituela ere ezin inondik aipatu gabe utzi.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Urrezkatea.** Amezketan, Zazpi-Ilturri inguruan urrezko katea bilatu da. J. Z. inzialekin. Jabeak dei dezala 678 47 66 12 telefono zenbakira.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk.	Gares.		
Landareak			
Azalea	7,00	10,00	
Dipladenia	10,50	-	
Xarbota	4,00	6,00	
Ziklamena	5,50	-	
Salbia	1,00	1,20	
Zain zuria	2,80	-	
Erromeroa	4,00	6,00	

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak			
Onddoak potean	9,00	-	

Fruta

Kiwi	3,50	-	
Gaztaina	3,00	-	
Intxaurra	2,50	4,00	
Matxakanak	5,00	-	
Urra	2,00	3,00	
Irisagarra	1,00	-	
Pikua	3,00	-	
Errezil sagarra	2,00	4,00	

Barazkiak

Tipula	0,80	1,00	
Babarrun berria	12,00	13,00	
Babarrun zuria	8,00	-	
Tomatea	3,00	-	
Gardua	3,00	-	
Krones	3,00	-	
Porruak	1,00	4,00	

Ibarrako piparra	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	-
Patata	1,00	1,50
Espinaka	2,00	-

Barazkiak (unitatea)

Eskarola lisua	1,00	1,50
Eskarola rizatua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Txikoria	1,00	-
Trebisoa	0,50	-
Letxuk	0,50	0,60

Besteak

Arrautzak	2,50	3,00
Artisau ogia	2,80	3,70
Madalenak (500 gr)	3,60	-
Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Ogi biologikoa (500 gr)	2,20	-

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Mermelada	3,00	3,60
Arrautzak	3,50	-
Intxaurra	4,00	6,00
Baratxuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Ahuntz gazta (200gr)	3,00	-
Arroza	1,90	2,00



Tolosan elkarretaratze bidez salatu zuten Elena Cal-en erailketa. I. TERRADILLOS

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Itsasoko lamiak eta Heineken botilak, trikitalariekin batera Maritxuren etxera joan ziren eskera. N. LATABURU

Eskelarien bisita urtero falta ezin den sartu-irtena

Leitza » Atzo eguerdian eman zieten hasiera Ihoteei; Aurreran bazkaldu ostean, kalera, eskera atera ziren leitzarrik.

ERREDAKZIOA

Urtarrileko aldapa nola leundu ederki dakite Leitza. Horretaz arduratzen dira herriko *Pesta Txikiak*, hau da, ihotekak. Eguberri giroa oraindik ere erabat aldentzeaz dagoen honetan, iritsi damozorren festa gure eskualdera.

Eguerdian, bazkari eder batekin ekin zioten atzo festari. Aurrera elkartean 60 lagun inguru bildu zi-

ren bazkaltzera, indarrak hartu eta gero eskean, herriko kaleak igarotzen hasteko.

Leitza ohitura den bezala, eskean ekiten diete Ihoteei. Taldeka edo koadrilaka banatzen dira, eta etxez-etxe, atea joz, herri guztitik barrena umorea zabaltzeaz arduratzen dira eskelariak. Atzokoan, alde batetik Leitza Power Rangerrak atera ziren eta bestetik itsas lamiak eta Heinekenak.

Azken bi koadrilak Azkoitiko trikitalariekin lagunduta Basakabalderra abiatu ziren. Han Maritxu zain zuten urtero bezala, etxeko atea zabal-zabal eginda. Kafe beroa, pastak eta pattarra atera ziren eskean joandako gazteei. Aspaldi-

ko ezagunak dira Maritxu eta eskera joaten diren gazteak. Emakumeak azaldu zuenez, duela 44 urte etorri zen Leitza, eta ordutik ohitura horrekin jarraitzen du, hau da, eskean datozen, jatekoa eta edatekoa eskaintzen. Gustura hartzen ditu etxean, trikiti doinuak eta gazteen humorea, urteroko bisita-txoa, jada usadio bihurtu baita bere etxean.

Batzuk jatekoa eta edatekoa ematen diete, besteek berriz dirua. Eskean biltzen dena Ihotek ordaintzeko erabiltzen da, eta jada festaren parte da hau ere. Eskelarietako laguntza, eta hauen etorrera iragartzen aritu ziren txistulari, trikitalari eta akordeoi jotzaileak.



Patata tortilla, etxekoa bezalakoa

TOLOSA » «Txapin festa urtean behineko ekitaldi bat baino gehiago delako», atzo ere Gazteok Txapinetan elkartek eta Inperu Gaztetxeak antolatuta festa giroa zabaldu zen Tolosan. Arratsaldean, jaiari hasiera emateko, koadrilaren arteko patata tortilla lehiaketa egin zuten. Bost taldek hartu zuten parte, eta ondoren, denen artean jan zituzten. Irabazleek txapin eraman zituzten etxera. Festari bertsoariekin eta musikarekin eman zioten jarraipena. N. LATABURU



Egun batez Saharatik gertuago

TOLOSA » Sahara gertuago sentitzeko eta herri honek bizi duen egoeraz eskualdeko jendea sensibilizatzeko, haima bat jarri zuten atzo Triangulo plazan, Tolosaldea Sahararekin elkartearan ekimenez. Afrikako lurralde horren adierazgarrietako bat da hau, eta bertan, ohikoa den bezala, tea hartzeko aukera egon zen. Honez gain, janari bilketarekin jarraituz, jendeak hara bidaltzeko jakiak bertan utzi ahal izan zituen. N. LATABURU

» EGITARAUA

Gaur, Zaldun ihote

- **12:00etan.** Atsaureak eta gurdiak buelta emanen dute herrian barrena, txarangak lagunduta.
- **12:00etan.** Txu-txu trenaren ibiliko da herrian.
- **14:30ean.** Atsauren herri bazkaria. Ondoren kalejira txarangarekin.
- **16:00etan.** Txu-txu trenaren herri-rik barrena.
- **19:00etan.** Garraxi taldearekin musika karrapen.
- **23:00etan.** Garraxi taldea karrapen. Ondoren, Inkansables txarangarekin itzulia herrian barrena.

Bihar, Astelehen ihote

- **09:00etan.** Baserrietako eta bordetako eskea: Gorritzaran, Sakulu, Erreka eta Arkixkil auzoetan.
- **16:00etan.** Gaztelu puzgarriak.
- **19:00etan.** Gaubela taldearekin musika karrapen.
- **23:30ean.** Atsedendialaren ondoren berriro Gaubela taldearekin musika karrapen. Ondoren, Inkansables txaranga herrian barrena.

Etzi, Astearte ihote

- **09:00etan.** Erasote auzoko borda-baserrietako eskea.
- **11:30ean.** Umeentzako Xurdi-

nen saioa izango da eskolataro jangelan.

- **14:30ean.** Aurreran bazkaria.
- **17:00etan.** Umeen kalejira txarangarekin, gero txokolate jatea.
- **18:30ean.** Leitza atsaureak eta txistulariak; herrian barrena kalejira... Berreskura ditzagun lehenengo jantziak eta pestak!
- **19:00etan.** Gaubela taldea karrapen.
- **23:30ean.** Atsedendialaren ondoren, Gaubela taldea karrapen. Ondoren, Inkansables txaranga.
- **24:00etan.** The Sparteens taldearen kontzertua Atekabeltzan.



sarrerak

HITZAK bi sarrera pare ditu

Ibarrako Uzturpe ikastolaren X. kultur astearen barruan

IRRIEN LAGUNAK
Pirritx eta Porrotx-en ikuskizuna

Urtarrilak 27 • Asteazkena • 18:00ean
Ibarrako Belabieta kiroldegian (berogailu sistemarekin)

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira astelehen goizetik aurrera



Panelen euren iritzia ematez gain auzoko argazki zaharrak ikusteko aukera daukate amarotzarrek. N. LATABURU

Auzokideak parte-hartze altuarekin ari dira zehazten nolako Amarotz nahi duten

Gizartea » Amarotz Auzo Elkarteak herri galdeketa antolatu du; gaur ere bizilagunek iritzia emateko aukera izango dute.

ERREDAKZIOA

Amarotzek zer nolako ekipamendu komunitarioak edukiko beharko litzuzkeen, gai horren inguruan bizilagunek iritzia zein den eta zer nolako herria, zer nolako Tolosa nahi duten erabakitzeko herri kontsulta antolatu du Amarotz Auzo Elkarteak. Hala, atzo eta gaur artean auzokideek euren iritzia emateko aukera izango dute.

«Uste baino jende gehiago»

Amarotz Auzo Elkartearen kanpoaldean panel batzuk atondu zituzten, aterpean. Bertan Amarotz auzoko argazki zaharrak auzorako aurreikusita dagoen plan berriko planoak, proiektio bat eta ekarpenak egiteko panelak jarri zituzten. Goizean goiz, lehen bizilagunak gerturatzeko hasi ziren. «Oso gustura gaude, uste baino jende gehiago ari da gerturatzeko», aitortu zuen Josepi Artolak, auzo elkartearen partaidea. Horrelako ekimenak «beharrezkoak» direla aipatu zuen Artolak. Hau guztia gauzatzeko elkartetik aspaldi hasi ginen lanean, euren ustez «herriarekiko aukera ematea oso garrantzitsua» delako.

Jai kutsua eman nahi izan diote ekimen honi. Horretarako, ezin

falta musika eta janaria. Atzokoan, hortaz, trikiti doinuek batetik eta saldak eta txorizo egosiak bestetik epeldu zuten giroa.

Bizilagunen hainbat ekarpen

Aisiaz, kirolaz, ingurune naturalaz, giza harremanez, merkataritzaz, enpleguaz, zerbitzuez, ekipamenduez, etxebizitzez, eman ahal izan zuten iritzia amarotzarrek. Denetik irakur zitekeen paneletan, zenbait gaitan bat egiten bazuten ere.

Kiroldegia estali baten beharra, esaterako, batek baino gehiagok aipatu zuten, «herriko kirol taldeek kudeatutako» gainera. Beste

Beste beste, aisiaz, kirolaz, ingurune naturalaz, enpleguaz, eman dute iritzia

Festa kutsua izan zuen galdeketa eta trikiti doinuek eta janaria ez zen falta izan

Ondorengo egunetan galdeketa onorioak auzokideei eta Udalarari aurkeztuko dizkiete

zenbaitek kiroldegia ez baina, pilotaleku estali bat eskatzen zuten, «bertan kirolak, festak, antzerkia...» egin ahal izateko.

Gizarte gaietarako gune baten garrantzia ere errepikatu zen, non

«medikuaren kontsulta, jubilatuen elkarteak, ludoteka, bateratzen diren». Medikuaren harira, umeentzako pediatriaren eskaera ere aipatu zuten.

Etxebizitzaren inguruan, «alokai soziala» exijitzen zuten hainbat bizilagunek. Honi lotuta, «hutsik dauden etxebizitzaren kontrol handiagoa eta hauek auzoko beharretara egokitzea» ere eskatu zuten.

«Parte-hartze demokratiko baten beharra» ere aldarrikatu zen atzo Amarotzen, «herri galdeketa gehiago, eta gai garrantzitsuen aurrean erreferendum gehiago» exijitu ziren.

Honen harira, bizilagun batek Udalarari «herri demokratiko bat» izatea eskatu zion. «Garrantzitsua iruditzen zaizkit horrelako ekimenak baina lehenengo gauza Tolosa demokratiko bat nahi dugu, hori izan beharko litzateke lehen helburua, Amarotzko bizilagun askoren hitza ez baitago ordezkatua Udal honetan». Hala, «hitzetatik ekintzetara pasatzea» eskatu zuten. Izan ere, bere ustez, «auzoetan parte-hartzea da inportantea, auzolana da oinarria».

Eta ondoren, bildutako iritzi hauekin zer egingo dute?

Gaur bertan herri galdeketa honean auzokideek egindako ekarpen guztiak bilduko dituzte. Honekin ondorio batzuk aterako dituzte eta auzoan banatuko dituzte «ahalik eta azkarren, aste honetan bertan». Behin auzokideak informatu ondoren, hurrengo urratsa ondo-

» INKESTA

1. Zer iruditzen zaizu proiektu berria Amarotzen?
2. Zer ekarpen egin duzu herri galdeketa?



«Ondo dago auzoa haztea, baina beldurra ematen du»

Antxone Perez eta Iker Arbeleki

AUZOKIDEAK

1. Amarotz bezalako auzo bat hazitzea ondo dago, baina etor daitezkeen beldurra ematen du.
2. Trafikoa hobeto erregulatzeko semaforoak eta koskak ikusten ditut beharrezkoak; baita autoentzako garajeak ere. Bestalde, ludoteka bat soldatepeko langiekin eta liburutegi bat ere behar ditugu. Futbol zelaiak ere berrikuntza bat behar du. Horrelako galdeketa oso onak iruditzen zaizkit, gure iritzia eman ahal izateko.



«Zerbitzu guztiak bilduko dituen eraikuntza behar da»

Joxe Sagastibelza

AUZOKIDEA

1. Ekipamenduak egokitu gero etxe berriena oso ondo ikusten dut. Hala ere, Udalak bere puntutak jartzen ditu eztabaidatu gabe. Gero parte-hartzea esaten dute baina... Guk, alderantziz, Amarotz nola nahi duten galdetzen dugu.
2. Oinezkoentzat espaloi eder bat ikusten det beharrezkoa, argi gehiago duena. Halaber, zerbitzu guztiak bilduko dituen eraikuntza behar da: ludoteka, jubilatuentzat, medikua, garajeak, ... Hori litzateke politena eta merkeena.

rio hauek Udal arduradunei entregatzea izango da. «Suposatzen dugu horrelako galdeketa baten ondoren bertan jartzen duguna aztertuko dutela», dio Artolak.

Artolak berak ere, Amarotzko bizilagun bezala, hainbat behar ikusten dituela azaldu du. «Urtetan ari gara oinezkoentzat baldintzak hobetzea, Tolosara jaisteko bidea oso arriskutsua da, segurtasun eta kalitate hobetza lor daiteke». Halaber, ekipamendu aldetik «haurreskola bat, pediatria bat, aisiarako guneak, ... behar ditugu».

Amarotz auzorako plan berria erabat itxi gabe dago oraindik, baina gutxi gora behera 1.000 lagun berri izango direla aurreikusten dute, 300 etxebizitza inguru berri eraikiko baitira. Horretarako «ezinbestekoa da azpiegiturak» prestatzea.

Atzokoan aukerarik izan ez zutenek gaur egun osoan zehar euren iritzia eman ahaliko dute.

Udalak babestutako proiektua

Kontsulta Udalaren babesarekin ari dira gauzatzen. Amarotzen egingo diren aldaketa handiek, hau da, paper fabrikaren inguruko 300 etxebizitzek, ekipamenduen arloan planteamendu berri bat ekarriko dute auzora. Arrazoi horregatik erabaki zuten kontsulta egitea. Amarotz Auzo Elkartearen esanetan, «ekimenaren helburua nagusia hori da. Hala ere, Udalak planteatutako Tolosa-2015 proiektua martxan dagoenez, interesgarria iruditu zaigu aukera hau aprobetxatzea, etorkizuneko gure herria zer nolako auzo nahi dugun jakiteko».

2-16 urte
bi urteko gelak - udal ludoteka
uzturpe ikastola
herrian hazi eta hezi
Zabaldean kai batezko heziketa euskalduna eskaintzen
ATEAK ZABALIK Emeterio Arresen
urtarrilak 25 astelehena
17:00tan Euskaraz
18:30ean Gazteleiaz
Tel. 945 811700 | Fax. 945 810000 | Email: auzokide@tolosa.net | www.uzturpe.net



Helburu bera duten hainbat adin talde nahasten dira Ferialekuan. Karrozak egiterako unean, denek Zaldunita eta Asteartita dituzte buruan. ASIER IMAZ

IDEIEN LABORATEGIA

Inauteriak » Ferialekuan karroza proiektuak bata bestearen ondoan pilatzen dira. Egutegian bi data daude gorritz margoturik: Zaldunita eta Asteartita.

ASIER IMAZ

Leitzak eman zion atzo Inauteri denboraldiari hasiera. Tolosaldean ordea, gehienek otsailaren 11 besterik ez dute buruan.

Tolosako ospakizun handi hau prestatzeko, aurretik, Ferialekuan izugarritzko mugimendua egoten da. Egutegian gorritz Zaldunita eta Asteartita idatzi dituzte hemen eta hainbat koadrila lanean gogor dabilta; egun horietan kalera aterako dituzten karrozak amaitu nahian.

Garagardo jaialdi handiena

Tolosako lagun talde bat *Otsail Fest* prestatzen topatu ditugu Ferialekuan. Urtarrilaren 19an hasi ziren kamioneta txikia Garagardotegi bilakatzeko. Ideiaren inguruan galdetuta, gehienek bezala, «afari baten inguruan» erabaki zutela aipatzen dute, «duela astebe».

Argi dago goiztiarrenak ez direla baina gogotsu dabilta lanean: «Beti bezala azken unean erabaki dugu zer egin. Aurten gainera

Inauteriak nahiko goiz tokatu dira eta... Elkarrean afari bat egiteko bildu ginen eta bakoitzak bere ideiak bota zituen. Alemaniako Garagardo Festa ospetsua izan zen gehien gustatu zitzaiguna eta aurrera».

Karrozaren estruktura oraindik ez du azterna handiegirik ematen. Eurek ordea argi dute zer egin eta gelditu gabe dabilta hara eta hona: «Guretzat garrantzitsua ondo pasatzea da, gozatzea. Gero giroa jartzeko ere aitzakia polita izaten da karroza. Egun berezia izaten da, zalantzarik gabe. Oste-gun Gizena ere ederra da baina igandean goizetik sartzen zara festa eta indarririk galditzen bada, gauean ere hor jarraitzen duzu».

Aurten gainera, «berrikuntza» batekin irtengo omen dira kalera *Otsail Fest*-ekoak: «Lehen aldiz 1996. urtean atera ginen modu honetan, karrozarekin edo. Orduan gida-baimenik ez genuen eta autoarekin atera ginen, kotxez ibiltzeko sortzen zigan ilusioagatik batik bat. Behin gida-baimena aterata, karroza egiten hasi ginen baina

kasu honetan bultzaka ibiltzen ginen. Horrela ibiltzeaz nazkatu eta aurten kamioi txiki honekin irtengo gara, berrikuntza dela esan daiteke». Horrek eskulan handia eta ingeniari gutxi egotea eskatzen du ordea: «Garagardotegi edo plataforma ibilgailuaren gainean joango da. Ideia asko izaten dira eta hor ibiltzen gara eztabaidan, gauzak nola egin eta abar. Baina azkenean ongi moldatzen gara».

Guzti honek badu beste alde on bat ere: «30 lagun inguru elkartzen gara karrozaren inguruan. Urtean zehar Inauterietan eta Eguberrie-

«Igandea berezia izaten da; egindako lan guztiagatik sari bat jasotzea bezala da»

tan bakarrik elkartzen gara denak. Azkenean beraz, guztiak elkartzeko aitzakia polita izaten da».

Egindako lan guztiarekin Inauterietan amaitzean zer gertatzen den galdetuta, dena loturik daukate: «Udaletxearekin hitz egiten duzu eta behin egin beharrekoa eginda, beraiek gordetzen dute karroza. Beraiekin elkartu, telefono bat eman eta listo».

Lanetik atera eta lanera joatea

besterik ez da geratzen beraz, Zaldunitan jaiatzeko, lagunetz eta nola ez, garagardoaz gozatzeko.

Marineak itsasontzian

Ferialekuaren barneko azken orman, zerbait handia aurkitzen da. Gazte jende mordo aurruntetik ikusten da, sabaitik lurretik baino gertuago. Garai bateko autobus baten inguruan, Ameriketako Estatu

Batuetakoa marinez irtengo diren bi koadrila daude. Itsasontziaren itxura eman nahi diote ibilgailu zaharrari. Batzuk brankan, besteak popan eta bi kapitainak autobusbaten gainean. Nahaste honetatik zerbait polita aterako dela pentsatzea zilezkoa da: «Tolosakoak eta Ibarraoakoak gara. Inauterietarako beti elkarrekin gabiltzan bi koadrila elkartzea erabaki genuen, ba-



Beti dago artistentzat lekua Tolosako Inauterietan. A. IMAZ



Batzuetan lagun eta besteetan eztabaidan, baina beti helburua zein den argi dutela. Ferialekua laborategi handi bat bilakatu da Inauterien aurreko egun hauetan. A. IMAZ

karka horrelako gauza handi eta polit bat egitea ezinezkoa zelako. Aurtengoa berezia izango da gainera; iaz, modu onean, autobus bat erosteko aukera sortu zitzaigun eta inbertsio gisa planteatu genuen. Hurrengo urteetarako oinarria ibilgailu hau izango da, eta ideiak honekin zerikusia izango dute. Gauzak horrela, zertaz atera nahi genuen aztertzen hasi ginean, itsasontzi bat egitea bururatu zitzaigun. Hortik marineen kontua etorri zen eta azkenean ho-

«Ferialekutik irtetean non zauden jabetzen zara; ongi pasatzea besterik ez da gelditzen»

rrrela irtengo gara». Materiala handik eta hemendik eskan lortu duten arren, poltsikotik ere jarri beharrean aurkitu dira.

Guztira 35 lagun inguru elkartuko dira Zaldunitan eta Asteartitan, denak txuriz jantzita eta gozatzeko gogo handiz. Hori bai, aurretik lan egin beharra dago eta antolakuntza gauza garrantzitsua da: «Jende asko garez ardurak banatzen saiatzen gara. Batzuk moztorez arduratzen dira, besteak itsasontziak eta besteak gainontzekoak. Gero noski, batzuk besteek baino lan gehiago egingo dute baina...». Jaiaren inguruan ez dute zalantzarik, karrozarekin igandean eta asteartean irtengo dira kaleara: «Horrelako lana egin ondoren, bi egunetan ateratzea izaten da

onena. Batzuk asteartean lana izaten dute eta igandean bakarrik ateratzen dira. Gure kasuan, bietan gozaten saiatuko gara. Egun horiek sari baten modukoak dira. Hasieran urduri egoten zara, egun bakarerrako lan handia hartzen baituzu. Gero, Ferialekutik irtetean, Inauterietan zaudela jabetzen zara; kalean izugarriko giroa ikusten duzu eta ondo pasatzea besterik ez dela gelditzen konturatzten zara. Egin duzun lan guztia kontuan hartuta, errazena geratzen zaizu beraz: gozatzea. Ilusio handiarekin bizitzen duzu dena».

Iaz elkartu zireen bi koadrilak Inauterietarako; «oso egun ona» igaro zuten eta aurten errepikatzeke moduan aurkitzen dira. Elkarlanean nola dabilizan ikusita, hori ziurtzat jo daiteke.

‘Euskobision’ eta guzti

Multzotik bikotera. Iazko karroza eraberritu nahian dabilta andoaindarrak. Muntaia handiegia ezal da birezat bakarrik? «Guztira 30 lagun inguru gara, haurrak eta guzti, baina gaurkoan guri tokatu zaigu lan egitea». Izerdia gogotik bota ondoren, merezitako atsedena hartzen ari dira. Hauek ere ibilgailua izango dute karrozaren oinarria, baina gainean zer joango da? «Euskobision-etaz irtengo gara. Iaz Gospel musika hartu genuen gaitzat, aurten berri, denak elkartu ondoren, Eurovision-en moduko zerbait egitea pentsatu genuen. Noski, euskal ukituz. Hortik sortu zen Euskobision. Haurre-

kin irteten garez, aktuazioren bat egitea ere polita izango zela pentsatu genuen, eta horrela egingo dugu. Karroza egiteaz gain, entseguak ere egin ditugu beraz».

Horretarako lehenik eszenatokia prestatu behar dute eta hor sartzten da iazko esturktura. Dena pentsaturik dago: «hor korua joango da, hemen musika, alboan aldagelak eta han atzean, nola ez, garagardo kupela».

Euskobision-ek musikari ezagunak ekarriko ditu Tolosara, euskal kantu eta ordezkariak barne. «Bakoitzak paper bat egin beharko du, baina badira bi abeslariren ardura eraman beharko dutenak ere».

Larunbatean Andoainen irtengo dira kalera, han ere Inauteriak ospatzen baitituzte. Ondoren, igandean eta asteartean, Tolosara etorriko dira. Hori bai, bi jaiak euren artean ez dute ezerean antzik, artista hauen esanetan: «Andoainen 16:00etan hasi eta 19:00etan bukatzen da desfilea. Aktuazioak egiteko denborarik ere ez duzu izaten, izan ere, ez dakizu bi minutu edo 20 egongo zaren geldirik. Tolosa ehuneko ehunetan desberdina da. Hemen gertatzen denak ez dauka inon parekorik, eta horregatik etortzen gara haur eta guzti; Inauteri hauek zoragarriak dira».

Ferialekuko laborategian sortzen diren ideiak, Tolosako Inauterietan aterako dira kalera. Benetako ikuskizuna hor egongo den arren, Ferialekuan aspaldi hasi ziren Inauteriak.



Lanetik atera eta Ferialekura, berriro lanari ekitera. A. IMAZ



GOIZA	EURIA
ARRATS. LAINOTUA	9°
BEROENA	2°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizardza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Anoeta.** Dantza-soka otsailaren 6an izango da aurtengoan eta da-goeneko parte hartzeko izena eman daiteke Itzuli Tabernan. Hilaren 29an axeri-dantza erakutsiko diete gerturatzeko direnei. Astelehenean, hilaren 25ean, fandan-koa eta arin-arina erakutsiko dute. Lehen entsegu orokorra aldez, otsailaren 1ean izango da, 19:30ean. Aurtengoan lehen aldez entseguak kiroledegian izango dira.

■ **Villabona.** Euskal Herrian Euskaraz Mobilizazio Eguna antolatu du hilaren 26an, asteartean. Mintzola aurrean elkarretaraztea egingo dute 19:30ean, *Euskarari erasorik ez, euskaraz bizitzeko egunkaria libre!* lelopean.

■ **Tolosa.** Oargi elkarteak mendi irteera antolatu du hilaren 29tik 31rako, Pic Deseques mendira. Izena emateko bi aukera daude: 688 69 86 42 telefono zenbakira deituta, 19:00etatik aurrera, edo oargi@euskalnet.net-era idatzita.

■ **Tolosa.** Hilaren 26ean, Meza izango da 19:00etan Santa Maria parrokian, Haitiko lurrikaran hildakoen alde. Egun horretan bilduko den dirua Nazioarteko Laguntzarako Caritas-ek duen kontuan sartuko dugu.

■ **Tolosa.** Udaltzatzaile Ohiko Oso-ko Bilkura egingo du hilaren 26ean, asteartean, 19:30ean udaletxeko Bilkura Aretoran.

■ **Tolosa.** Haur danborradan Kosakaz atera nahi duenak, hilaren 30eko musika eskolako entseguetara azaldu beharko du, 15:30etik 16:30era bitartean. Apeaderoko sarrera erabili.

■ **Tolosa.** Andere Nahia elkarte-ko kide batek hitzaldia eskainiko du otsailaren 2an udaletxeko Bilkura Aretoran. Ekitaldia 18:00etan hasiko da. Andere Nahia Ipar Euskal Herriko emakume enpresariaren elkartea da.

■ **Tolosa.** Eskualdeko AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioa egingo du otsailaren 6ean, 17:00etan.

■ **Ibarra.** Santa Agedan aterako dira otsailaren 4an Hauspoa elkar-terko kideak antolatuta. Otsailaren 2an eta 3an udaletxeko sotoan entseguak egingo dituzte, 20:00etatik aurrera.

■ **Ibarra.** Kalderero eguna antolatu du Hauspoa elkarterko otsailaren 5erako, ostirala. Dena behar bezala prestatzeko, entseguak egingo dute Uzturpe ikastolako musika gelan, otsailaren 1ean 18:15ean. Bertara zartaginarekin joan behar da.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Igor Obesoren beira laren bilduma, *Aquatica*, Tolosako GKO arte galerian ikusgai egingo da hilaren 30a bitarte.

Hitzaldia

■ **Asteasu.** Aralar alderdiko Aintzane Ezenarro legebiltzarkideak, hitzaldia eskainiko du hilaren 26an, asteartean, 19:30ean udaletxeko ikus-entzunezko aretoan. Gaia: *Ezker abertzale politikoaren erronka*.

Zinea

■ **Villabona.** Gurea zineman, gaur, 17:00etan *Donde viven los monstruos* filma eskainiko dute.

19:30ean *Blindado*, Bihar, hilak 25, ikuslearen eguna izango da eta 21:30ean *Blindado* filma ikusteko aukera egingo da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** M. I. Kale Nagusia 7. 943 67 06 48.

■ **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanaren eta iritzien erantzukizunik.



Bertsoa eta hitza Txolarren alde

TOLOSA ● Leidor antzokia jendez lepo bete zen atzo arratsaldean, Txolarre irratia antolatutako bertso saioari esker. Txapelketa Nagusiaren zurrunbiloa oraindik ez dela erabat igaro eta honek bere fruitua utzi duela ikusi ahal izan zen atzo arratsaldean. Aitor

Mendiluze, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Amaia Agirre, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Andoni Egaña igo ziren taula gainera. Denek ere irritri librearen aldeko hitzak izan zituzten ahotan, eta saio polita eskaini zuten. E. EZBZA

A Agurrak



Zorionak!
Ainhitzek bihar 8 urte.
Muxu potoloak etxeokoen partez.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Arabia etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31800 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

- Izen-abizenak:
- Lanbidea:
- Helbidea:
- P.K.:
- Posta elektronikoa:
- Kontu zenbakia:

• N A :

• Jaioteguna:

• Herria:

• Tel.: